

¡AGUR, ARBOLA BEDEINKATUBE!



Neguban igartuten de arbolie; orriek jausten dire bere oñetara eta anche orbelak inñdarrik emoten deutzaz urtengo dirianak udabarrian orri barriai.

Gorputzarako irudije legez, bardiñ de izpirituarako berbakuntza. Arrapau euskubezan legezarrak, gure bizije ziriala, bañon gorde daigun gure euskaldun arimie eta onetati urtengo jakuz barriro foruak, bai, urtengo dira justiziaren eguzkije argituko danian, betiko udabariaren egunian.

Euskaldunak euskaraz eztakijenak ikasi biar dabe, arren, biotz indartsuarentzako bere errije maitauten dabena gauza erraza da; badakijenak ez aztuteko, euskerie korapillube estuten dituzana illobak aitona eta gurasoen jakintasuneko ontzije dalako.

Euskaraz berbeiten eben gure aitonen aitonak, gizon ayek etorri ziran, eztakigu nundik, narruakaz jantzijek, arrizko azkoriakaz armatubek, pakian lur gogor onetan laneiteko. Ayek baño gero etorri ziran iberotarrak, zeltak, erromarrak eta arabiararak, ekarri eben bako-chak bere berbakuntza, bañon zapaldu zirian Euskalerrriaren kontra. Euskarazko soñu gozoak entzun zirian Terranova-ko errijetan Colonen jayotza baño len.

¡Agur eiten zaitut, arbola zarra, anaijen odolez eta amen negarrez erregatube, bañon Jaungoikoaren eskubagaitik bedeinkatube, arech maitea, ondatuten dituzana zure sustraijak lur onetan, gizon prestuben biotzakaz oratube, gorde gaizuz danok zure kerizpian!

¡Agur eiten zaitut, zuri pe bai, Gernika, erri ederrenena, euskaldun danentzako erri santube, zugañ arbola santube jarririk dagolako: euskaldunen artian maitatube baliñ bazara, ayek baño nik maitauten zaitut gejjao, zergatik eugan zorionezko amesetiek baño eztitut ikusi gejjao, eztije baño egun gozuague pasa dot, eta zergaitik emenche nere biotzaren biotzeko abijie dago!

¡Agur eiten zaitubet, zuei pe bai, neure anaija laztanak! Denbora datorrena obie izango da; negu illunaren ondoren udabarri agertu oi dabe!

¡Orain arte esan deustube ¡aurrera!; bañan gure arbolie bere buruba gure burnizko mendijek egin zituzan Jaungoikoaren zerura jasoten dabena erakusten deusku zerube esanda legez, gora, beti gora!

Euskalerrria amen asi, Zeruan akabauko.

MIGEL UNAMUNO-KOAK.

Curiosidades bascongadas

PREGUNTA 71

AZCONAGA.—Habiéndose extraviado los documentos relativos á la casa y apellido de Azconaga, no mencionada en los dos tomos del erudito y curiosísimo *Diccionario heráldico de la Nobleza guipuzcoana*, recientemente dado á luz por el Sr. D. Juan Cárlos de Guerra, y siendo bascongado el origen del citado apellido, se llama muy particularmente la atencion de los ilustrados lectores de la EUSKAL-ERRIA, por si alguno de ellos pudiera suministrar noticias que conduzcan á la averiguacion del origen del referido apellido, que, á juzgar por su significado y formacion gramatical, debe tenerlo en alguna de las muchas casas solariegas que existen y han existido en las montañas euskaras.

UN BASCONGADO.
